Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1450

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 8koa Droga Gaietako zuzendariarena, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 16ko Aginduaren babesean aurkeztutako droga-mendetasunen arloko baliabide dokumentalen ikerketa, azterketa eta hobekuntza egiteko laguntza ekonomikoetarako eskabideen gainean hartutako erabakiaren berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2009ko azaroaren 18an argitaratu zen EHAAn 2009ko azaroaren 16ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, droga-mendetasunen arloko baliabide dokumentalen ikerketa, azterketa eta hobekuntza egiteko laguntza ekonomikoetarako deialdia egiten duena.

2.– 2009ko azaroaren 16ko Aginduaren 11.5 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Droga Gaietako zuzendariaren ebazpen bidez, xedapen honen babesean emandako diru-laguntzen onuradunak diren pertsonen eta entitateen zerrenda. Argitarapen hori gorabehera ebazpena berariaz eta banan-banan jakinaraztea ere badago.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko azaroaren 16ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta horien onuradunak diren ikertzaileak/ikerketa-taldeak eta ezetsitako eskabideak argitara ematea. Datu horiek I. Eranskinean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 8a.

Droga Gaietako zuzendaria,
CELINA PEREDA RIGUERA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

1450

RESOLUCIÓN de 8 de febrero de 2010, de la Directora de Drogodependencias, por la que se hace pública la relación de subvenciones concedidas para la investigación y el estudio y la mejora de los recursos documentales en materia de drogodependencias al amparo de la Orden de 16 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales.

ANTECEDENTES

1.– Con fecha 18 de noviembre de 2009 se publicó en el BOPV la Orden de 16 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se convocan ayudas económicas para la investigación y el estudio y la mejora de los recursos documentales en materia de drogodependencias.

2.– El artículo 11.5 de la Orden de 16 de noviembre de 2009, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, señala que, sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante Resolución de la Directora de Drogodependencias, la relación de las personas y entidades que hayan resultado beneficiarias de las subvenciones concedidas al amparo de la presente disposición.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Hacer pública, según consta en el Anexo I de esta Resolución, la relación de las subvenciones y personas/equipos de investigación beneficiarios junto con la relación de solicitudes denegadas referidas al Capítulo IV de la Orden del Consejero de Empleo y Asuntos Sociales de 16 de noviembre de 2009.

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución, para su general conocimiento en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2010.

La Directora de Drogodependencias,
CELINA PEREDA RIGUERA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

DROGA MENDEKOTASUNEN EUSKAL BEHATOKIAREN ESPARRUAN DROGA MENDETASUNEN ARLOKO AZTERLANAK ETA IKERLANAK EGITEKO LAGUNTZAK
AYUDAS PARA LA INVESTIGACIÓN Y EL ESTUDIO Y LA MEJORA DE LOS RECURSOS DOCUMENTALES EN MATERIA DE DROGODEPENDENCIAS

Eskatzaileen zerrenda, proiektuak eta emandako diru-kopurua
Relación de solicitantes, proyectos y cantidad otorgada.

Asociación T4	Drogen kontsumo problematikoak GIB-HIESarekin bizi diren eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen lagin batean duen eraginaren azterlana, kalteak murrizteko ikuspegitik. *Estudio de la incidencia del consumo problemático de drogas en una muestra de personas que viven con el VIH/SIDA y en situación de exclusión social desde la perspectiva de la reducción de daños.*	6.000
Cáritas Diocesana de Bilbao	Hontza Zentroaren eragina droga-kontsumoarekin lotutako arriskuak eta kalteak murrizteari dagokionez. *Impacto del Centro Hontza en la reducción de riesgos y daños asociados al consumo de drogas.*	21.324
Pedro Aramendi Jauregui	Drogen gaia hasierako lanbide-prestakuntzako programetako ikasleen artean: problematika eta hezkuntza-arloko erantzunak. *La cuestión de las drogas entre los alumnos y las alumnas de los programas de cualificación profesional inicial: problemática y respuestas educativas.*	8.471
Asociación Vasca de Deportistas contra la Droga	Tabako-kontsumoa, alkohol-kontsumoa eta kontsumo horiek jarduera fisikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasunarekin zerikusia duten bizimoduaren beste alderdi batzuekin duten lotura. *Consumo de tabaco, consumo de alcohol y su asociación con la actividad física y otros factores del estilo de vida relacionados con la salud en el País Vasco.*	9.513
Sociedad Vasco Navarra de Prevención del Tabaquismo	Kartzinogenoen eta tabakoaren kearen beste osagai toxiko batzuen eraginpean egotearen neurketa ostalaritzako langileen talde bat hartuta. *Medición de la exposición de carcinógenos y otros compuestos tóxicos del humo ambiental de tabaco en una cohorte de trabajadores de la hostelería.*	14.415
Adi Egon , Asociación para el Bienestar Psicosocial	Drogen kontsumo problematikoak duen eraginaren ebaluazioa nerabeen lagin bat hartuta, familia barneko indarkeria-programa batean. *Evaluación de la incidencia de consumo problemático de drogas en una muestra de adolescentes en un programa de violencia intrafamiliar*	9.176
Munduko Medikuak/Médicos del Mundo del País Vasco	Munduko Medikuak erakundeak duen kontsumo ikuskatuko aretoaren jardueraren (2003-2009)ebaluazioa. *Evaluación de la actividad de la sala de consumo supervisado de Munduko Medikuak 2003-2009.*	25.631
Fundación Ede	Toxikomanoak gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetara hurbiltzea. *Un acercamiento a los procesos de inserción sociolaboral de personas toxicómanas.*	10.335
Fundación Ede	Droga-mendetasunak prebenitzeko kanpainei buruzko telebista-iragarkien gaineko azterketa, baita iragarki horiek nerabeengan duten eraginari buruzkoa ere. *Análisis de los anuncios televisivos de las campañas de prevención de drogodependencias y su incidencia en la población adolescente*	14.230

Asociación Edex	Europa osoko droga-mendetasunen prebentziorako eskola-programa bateko droga-kontsumoarekin lotutako aldagai sozialei buruzko ikerketak. *Investigaciones de las variables sociales relacionadas con el consumo de drogas de un programa de prevención escolar de las drogodependencias a escala europea..*	11.964

Dirulaguntza ukatzen zaien eskatzaileen eta proiektuen zerrenda.
Relación de solicitantes y proyectos a los que se les deniega la subvención.

Farapi	Gazteei eta drogei buruzko ikerketa egiteko proposamena Datu-bilketan aztertu behar diren alderdien berrikusketa *Propuesta de investigación sobre juventud y drogas. Revisión de los aspectos a analizar en la recogida de datos.*	Ikerlanaren xedea ez dago aurreikusia Aginduak jasotako gauzatu beharreko helburuen artean. *El objeto de la investigación no está contemplado entre los objetivos a satisfacer en la Orden*
Farapi	Psikofarmakoen kontsumoaren arloko baliabide dokumentalak aztertzeko eta hobetzeko proposamena: genero-ikuspegia sartzea. *Propuesta de estudio y mejora de los recursos documentales en materia de consumo de psicofármacos: introducción de la perspectiva de género*	Ikerlanaren xedea ez dago aurreikusia Aginduak jasotako gauzatu beharreko helburuen artean. *El objeto de la investigación no está contemplado entre los objetivos a satisfacer en la Orden*
Farapi	Kanabis-kontsumoari buruzko inkestetan aztertu behar diren alderdien berrikuspena. *Revisión de los aspectos a analizar en las encuestas de consumo de cannabis.*	Ikerlanaren xedea ez dago aurreikusia Aginduak jasotako gauzatu beharreko helburuen artean. *El objeto de la investigación no está contemplado entre los objetivos a satisfacer en la Orden*